



PERTSONA OROREN ONGIZATEA BERMATUKO DUTEN GIZARTE POLITIKAK

PROPOSAMEN SEKTORIALA III

01 Sarrera

EAJ-PNVren ereduak betidanik arreta berezia eskaini dio Euskadiren erakuntza sozialari. Izaera humanista sakon batetik abiatuz, gizarte desberdintasunei mugak jarri eta pertsona ororen gizarte babesaren bermatzeko neurri eraginkorrrak eta aurrerakoiak martxan jarri ditugu azken hamarkadetan. Etenik gabe testuinguru berrietara egokituz, krisialdien aurrean euskal erakundeen arteko erantzun partekatua bideratuz, herritar ororen bitzita proiektuak eta ongizatea lehenetsiz.

Ez dira nolana hikoak izan azken urte hauek gizarte babesaren ikuspegitik. COVID-19 pandemiaren eta azken urteotako gorabehera ekonomikoaren inpaktua handia izan da gurean, mundu guztian bezala.

Eragin horren ondorioz, arazo eta errealitate sozial berriak sortu eta areagotu dira, zalantzarik gabe: behar sozio-ekonomikoen areagotzea, pobrezia eta bazterkeria egoerak kronifikatzeko arriskua, gizarte desberdintasunen igoera globala, zaugarritasuna, bakardadea, buruko gaixotasunak... Aldi berean, eraldatze demografiko bete-betean gaude, erritmo bizkorrez zahartzen ari den gizarte bateko parte gara.

Europa mailan erreferentziazkoa den ongizate ereduak daukagu Gipuzkoan. Baina kohesio soziala bermatzeko ahaleginak ez du etenik. Are gutxiago eraldatze ekonomiko, sozial eta demografiko nabarmenak bizi ditugun garai hauetan.





02 Testuingurua

Gipuzkoako Foru Aldundiak lan eta ibilbide sendoa egin du azken zortzi urte hauetan, dagoeneko aurreko hamarkadan aurreikusten genituen eraldatze sozial eta ekonomikoek gizarte babeseko sisteman izango zuten eraginerako prestatu, aurre hartu eta zerbitzu berritzaileak esperimentatzeko. Horri esker oinarri sendoak ditugu gure lurraldean eta aitzindariak gara zaintza eredu pertsonalizatuak eta berritzaileak hedatzeko garaian.

- **Demografiaren eboluzioa.** Gaur egun, 65 urtetik gora ditu gipuzkoarren lautik batek. Aurreikuspenen arabera, 2040. hamarkadarako hirutik batek izango ditu 65 urte baino gehiago. Biztanleriaren zahartzearen

ondorioz, 80 urteko pertsonen taldea izango da proportzioan gehien haziko dena, mendekotasuna duten lagun kopurua ere nabarmen haziz. Beraz, gizarte beharrak ere biderkatuz joango dira datozen urteetan.

- **Inbertsioa.** Errealitate horri erantzunez, adineko pertsonen zaintzara bideratzen da egun Gizarte Politikako aurrekontuaren herena. Zortzi urtetan 161 milioi euroko igoera izan du Gizarte Politikako aurrekontuak, 495 milioi eurora iritsi arte 2023. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuaren ia erdira dena. Gipuzkoar bakoitzeko gastu sozialari erreparatuz, gaur egun 701 eurokoa da, 2015ean baino 230 euro handiagoa. Bestalde, mendekotasun laguntza eskaerei erantzuteko, 60 milioi euro bideratu zituen iaz Foru

Aldundiak, 14.000 onuradun baino gehiagorengana iritsiz.

- **Zerbitzu berritzaileak.** Demografiaren eboluzioaren ondorio ere bada gizarte zerbitzuetatik gero eta pertsona gehiagorengana iristea. Egun 28.800 lagun artatzen dira foru zerbitzu guztien bidez, 2015ean baino 800 gehiago. Era berean, eskaera eta behar berriei erantzuteko, 8 urtetan 1.122 plaza berri ireki dira babes-sarean, eta berrikuntzan oinarritutako zerbitzu eta baliabide berriak ari dira martxan jartzen azken urte hauetan, zaintzaren pertsonalizazioa eta komunitatearekiko loturak lehenetsiz.

Orain, oinarri sendo horietatik abiatuz, gizarte politikari bultzada berri bat eman eta Gipuzkoa kalitatezko zaintzaren abangoardian kokatzeko momentuan da. Horrek eskatuko digu, azkeneko urteetan jasotako esperient-

ziaz eta ikasgaietatik abiatuz, pertsona erdiguenean jartzen duen zaintza ereduak gizarte babeseko sistema osora hedatzea: oraindik eta gehiago pertsona bakoitzaren behar espezifikoei erantzuteko den arreta eredu zabalduz, erakundeen arteko elkarlanean gobernantzan sakonduz, berrikuntza eta teknologia aurreratua txertatuz, prebentzioan azpimarra jarritz, komunitatearen inplikazioa bilatuz eta zaintza zerbitzuen etenik gabeko ebaluazioa indartuz.

Hori guztia egiteko garaian, gainera, kontuan izango ditugu funtsezkoak diren beste hiru elementu: bakardadea eta buru osasuna bezalako gizarte behar berriei erantzun sendo bat ematea, Gipuzkoako gizarte babeseko eredu oinarri-oinarrizkoa den irabazi asmorik gabeko hirugarren sektore sozialarekin elkarlana indartzea, eta gizarte zerbitzuen epeertain eta luzeko jasagarritasuna bermatzea.

03 Ardatzak

Gizarte kohesionatu baten muinean edo erdigunean pertsonak daude. EAJ-PNVren konpromisoa, beti egin izan dugun moduan, herritar guztien ongizatea babestu eta garatzea da, kontuan izanda giza duintasuna eta bizitza direla gauza ororen gaindi dauden balioak. Eta balio horien gainean eraiki behar dela Gipuzkoa, gauza guztien gainetik. Orain arte bezala gizarte desberdintasunei aurre eginez, gizartean behar gehien duten pertsonen lagunduz eta babestuz, inor bazterrean utzi gabe eta zailtasun gehien duten pertsonen lan munduratzeara eraginez.

Helburu hori jomugan, gizarte zerbitzuak indartuko ditugu. Azken urteetan, bestek beste, COVID-19aren pandemiak ere bultzatuta, plangintza sendo bat osatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak sektoreko eragile guztiakin elkarlanean, Gipuzkoa Agenda 2020>2030 delakoa. Bide-orri hori finkatuta izanda, helburu hartzen du EAJ-PNVk datorren hamarkadara begirada zabaldu, eta 2030-2040 aldirako plangintza garatzea.

Izan ere, Gipuzkoa lurralde aitzindaria da gizarte politiketan eta, egungo eraldatze sozial eta demografikoei erantzuteko, gizarte politiketara bultzada berri bat ematea da gure konpromisoa, pertsona guztien kalitatezko zaintza eta babesa bermatuz.

Horretarako, sei ardatzetan oinarritutako proposamena egiten du EAJ-PNVk.

1. Pertsona erdigunean kokatzen duen zaintza eredu berritzailearen garapena babes sare osoan

Dagoeneko lurraldeko gizarte zerbitzuetan

abian den zaintza eredu berriranzko trantsizioa azkartu eta hedatuko dugu, kolektibo guztien zaintza eta arretan. Zaintzaren pertsonalizazioa oinarri hartuta, bakoitzaren beharrezkoak diren zerbitzuak garatuz eta moldatuz, gizarte eta teknologia berrikuntzak baliatuz, eta gizarte babesean komunitatearen parte hartzea sustatuz.

2. Adineko pertsonen eta menpekotasuna dutenen kalitatezko zaintzaren bermea

Gaur egun eta etorkizunean, adineko pertsonen kalitatezko zaintza bermatuko dugu, horretarako beharrezkoak izango diren azpiegitura eta zerbitzuak garatuz, eta kontuan izanda adituen arabera 2040. hamarkadan iritsiko garelako gizartearen zahartzeak goia

joko duen aldira: egoitza berriak eraikiz eta egoitza guztietan eredu etxekoia baterantz aurrera eginez, berrikuntza, pertsonalizazioa, komunitatea eta bizitza unitate txikiagoak sustatuz. Baita ere, etxeko zaintza profesionalizatu indartzen jarraituz. Horrela, adineko pertsona orok kalitatezko zaintza jaso dezan bermatuko dugu, etxean ez bada, etxean bezala sentitu daitezten.

3. Gizarte zerbitzuen lurralde oreka eta gertutasuna

Gipuzkoa osoan, menpekotasun, desgaitasun, zaurgarritasun edota bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden herritar guztientzat arreta pertsonalizatua garatzen jarraituko dugu, gizarte zerbitzuen onuradunek behar duten

arreta beren etxetik ahalik eta gertuen jaso dezaten.

4. Gipuzkoaren indar komunitarioa

Gipuzkoarrok zailtasunen aurrean komunitate gisa jokatzeko dugu, erantzun partekatua eta kolektiboak bilatzen ditugu. Horren lekuko, Gipuzkoak irabazi asmorik gabeko hirugarren sektore sozial dinamiko eta bizia du, hamarkada askotan gure lurraldeko desafio sozialei erantzuten jakin duena, erakundeekin elkarlanean. Eredu hori zaindu eta garatzen jarraitzeko momentua da, erronka demografiko eta sozialei aurre egiteko gure lurraldeak duen indargune nagusietako bat izango baita, zalantzarik gabe.

5. Berrikuntza etorkizuneko gizarte sarearen oinarri

Lanean jarraituko dugu berrikuntzak, aurrerapen teknologikoei eta digitalizazioak lagundu dezaten erabiltzaileen eta familien ongizatea areagotzen. Horixe izango da etorkizuneko gizarte sarea eraikitzearen funtsezko oinarrietako bat, esperimentazio, neurketa eta inplementaziotik abiatuta.

6. Gizarte zerbitzuen ebaluazioa eta bidegarritasuna

Kalitatezko zaintza eredu berritzailea hedatu eta bermatzeaz gain, eta zaintzaren kalitatea neurtzeko duen ebaluazio sistema aurreratu bat garatzearekin batera, gizarte zerbitzuen jasagarritasuna bermatuko dugu. Gipuzkoako gizarte ongizateko ereduaren oinarriak sendotuko ditugu, hirugarren sektore sozialarekin elkarlanean.





04 Proposamenak

1. Gizarte politiken eredu aldaketa gizarte sare osora hedatzea. Gizarte politikak egun murgilduta dauden trantsizioa bizkortuz, epe luzera gizarteak izango dituen beharrei erantzun zehatzak emanez.

- Adineko pertsonak etxean ezin bada, etxean bezala zaintzen jarraitzea. Etorkizunearan sortuko diren beharrei aurrea hartu eta eredu berrira egokitutako 11 egoitza berri sortuz.
- Gipuzkoako egoitza sarea eredu berrira egokitze bidean, datozen urteetan 19 egoitza

za eredu berrira egokitze lanak ere bultzatuko dira, pixkanaka aldaketa sare osora ere hedatuz.

- Mendekotasunaren eta zaugarritasunaren prebentzioan jauzi bat ematea, ikuspegi hori zerbitzu eta alor guztietara hedatuz.
- Indarkeriaren biktima izan den emakume bakoitzaren beharrei erantzun azkar eta osoa ematen jarraitzeko baliabide eta zerbitzuak garatzen jarraituko da, krisi zentro zein baliabide espezializatuen bidez.
- Gipuzkoako Enplegu Inklusiboa eta Kalitatezkoa sustatzeko Elkar Ekin Lanean es-

trategia sakonduko da, formazio eta enplegu ibilbide pertsonalizatuaren bidez, gizarteratzea eta bizitza proiektu duinak bermatzeko.

- Gipuzkoak duen erreferentzialtasuna mantenduz, babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeak ahal dela harrera familiekin hazi daitezten bultzatuko da, bereziki, behar bereziak dituzten haurrentzat harrera espezializatua areagotuz.

2. Zaintzaren pertsonalizazioa eta pertsonen beharrak erdigunean kokatzen dituen babes sistema garatzen jarraitzea.

- Adineko pertsonen gehiengoaren nahia-ri erantzunez, etxean bertan zainduak egon ahal izateko estrategia garatuko da, diru-laguntzak egokituz eta familiei behar duten babesa emanez, besteak beste.
- Etxeko zainketen profesionalizazioa bultzatzen jarraituko da, beharrezko formakuntzak, profesionalizazio ibilbideak eta familientzako diru-laguntzak garatuz.
- Atsedenaldira zerbitzuak zabalduko dira familia zaintzaileak babesten jarraitzeko, 100 plaza berriren sorrerarekin.
- Prebentzioa oinarri hartuta, kolektibo zaugarrien gizarteratzean aurrera egiteko erakundeen arteko elkarlana bultzatuko da. Era berean, zaintza ekosistema lokalak garatuko dira bazterkeriari aurre egiteko.

3. Komunitatearekiko loturak indartzea eta berrikuntzan oinarritutako sarea sendotzen jarraitzea.

- Egoitza eta etxebizitza eredu berritzaileak garatuko dira zaintza behar berriei erantzuteko: belaunaldi artekotasuna kontuan izanda, apartamentu tutelatu, bizitza osorako etxebizitzak, zein baliabide mixtoen bidez.

• Zaintza ekosistema lokalak gero eta udal-erri gehiagotara hedatzeko lan egingo da Gipuzkoako udalekin batera; zaintzak antolatze modu berri hau ahalik eta udal-erri gehienetan ezartzeko.

• Komunitatean txertatutako etxebizitzaren eredu garatzen jarraituko da desgaitasunen bat duten pertsonentzat, 150 plaza berriren sorrerarekin, zaintza eta autonomia uztartuz. Era berean, Bizitza Independenteko programan 250 lagun berri parte hartzea bultzatuko da.

• Komunitatearekiko lotura eta konexioak areagotzea, parte-hartze formula berrien bidez, boluntariotzaren sustapenean indarra ipiniz eta gizarte baliabideak herriguneetan kokatuz, besteak beste.

• Teknologia, produktu eta zerbitzu berritzaileen onurak aztertu, esperimendu eta inplementatzeko aukera berrien azterketa.

4. Lankidetzatik abiatuta, gizarte baliabideen lurralde orekan sakontzea eta sistemaren jasangarritasuna bermatzea

• Gipuzkoako gizarte ereduaren muina den lankidetzako gobernantzan sakontzea, gizarte eragile eta hirugarren sektoreko entitateekin elkarlana bultzatuz.

• Gizarte zerbitzu eta baliabideak beharrik dituzten pertsonengandik ahalik eta hurbilen egoteko apustua gauzatuko da, lurralde oreka eta gertutasuna bilatuz.

• Gizarte politiken kalitatea eta bikaintasuna bermatuko ditugu, pertsonen bizi kalitatea ebaluatuko duen Ebaluazio Agentzia baten sorrera bultzatuz.

• Funtsezkoa izango da etorkizuneko gizar-te-sistemaren jasangarritasuna lantzea eta gizarte politika eraginkorrek egitea benetako beharrei ahalik eta egokien erantzuteko.

